

Balorezko proposamena

Balore kuantitatiboa da, prezio jakin bat du produktu bakoitzarako. Prezioa edo abiadura balore neurgarriak izango dira.

Hauek dira gure proiektuaren onurak:

Gure planetako ingurumena ahalik eta gehien babestu nahi dugunez material biodegradagarriak erabili nahi ditugu, planeta gutxiago kutsatuz.

Bizitza errazagoa eta erosoagoa izan dezagun, gaur egungo egoera, (Kovid-19) dela eta pentsatu dugu egokia izango litzatekeela arazo larri honi irtenbide bat ateratzea. Koronabirusaren epidemiak Euskal Herrian jarraitzen du.

Gai honi buruz informazio asko bilatu eta aztertu ondoren egokia iruditu zaigu, eskumutur biodegradagarri bat egitea. Gainera honi esker ingurumenean gertatzen hari diren kutsadurak eta destrukzioak ahalik eta gehien sahiestu egingo ditu. Eskumutur honek Bio Bracalet izena duena, material biodegradagarriak erabiltzen ditu.

Produktu hau merkatuan berritzailea da, inork ez du orain arte asmatu eta horri esker erakutsi dezakegu, azkenean, helburuak lortzen direla. Teknologia berriei esker, produktu hau benetan funtzionatzea eta une zehatz honetan ditugun beharretara egokitzea erraztu digu.

Bio Braceletari esker, kaletik seguruago sentitu zaitezke, lasaiago joan zaitezke edozein lekutara jakinda zure albokoek Kovid-19 duten edo ez duten adierazten du. Gailu honek igortzen duen bibrazioari esker, jakin dezakegu 20 metrotan nortzuk daudaten Kovid-19.

Ukipen pantaila izateak kasuak dauden lekuak hobeto ikusarazten laguntzen du. Produktu hau egindako materialei esker, bere errendimendu ahalmena handiagoa eta iraunkorragoa da egunez egun.